

Notari-oinarriak "Sarrerren zozketa ATHLETIC CLUB - KOPA 2009" zozketarako

Artikulu II.- Inskripzio epea

Athletic Club, (hemendik aurrera KLUBA) zozketa bat egingo du eta bertan doan parte har dezakete jarraian agertzen den epean eta III artikulua araberako inskripzioa gauzatu duten bazkide guztiek.

Zozketaren helburua da, sari moduan, maiatzaren 13an Valentzian jokatu den 2009ko Kopako finalerako bat eta lau bitarteko sarrera erosteko eskubidea, bazkideen aldetik banaka ala taldeka. Sarrerak 14.800 izango dira guztira. Baren salneurria 50 eta 140 euro bitartekoa izango da.

Saridunek sarrerak hartu ahal izango dute emango zaien datan, inolaz ere aurrez aurretik. Sariduna agertuko ez balitz, aurrerago aipatzen den eran, ezarritako datetan, bere eskubidea galduko luke eta sarrerak aurrerago azalduko den tratamendua izango lukete.

Zozketa honen sariak, irabazlearen eskariari jarraituz, ezin izango dira aldatu, eraldatu ala konpentsatu.

Artikulu II.- Inskripzio epea

Sarrerak eskatzeko eta zozketan parte hartzeko epea, martxoaren 30ko (astelehena) 10.30etatik apirilaren 8ko 20:00etara egongo da zabalik. Eskaera eskaintza baino handiagoa izango balitz, notario aurrean egingo den zozketa publikoaren bidez egingo litzateke.

Artikulu III.- Inskripzioa

Sarrerak eskatzeko eta zozketan parte hartzeko epea, martxoaren 30ko (astelehena) 10.30etatik apirilaren 8ko 20:00etara egongo da zabalik. Eskaera 2009ko Kopako finala ikusteko KLUBAren eskaintza baino handiagoa izango balitz, zozketa egingo da epean jaso diren eskarien artean.

Zozketan parte hartu ahal izateko ezinbestekoa da ATHLETIC CLUBeko bazkidea izatea parte-hartzeko formularia betetzean. Inskripzio bi eratan gauzatu daiteke.

- Banaka: Inskribatzen den bazkide bakoitzak sarrera bat irabaz dezake.
- Taldeka: beste bazkide batzuekin, lau gehienez, eskatzailea eta balizko onuraduna bakoitza izanik. Kasu honetan, eskaera batenpean sartu diren pertsonen sarrera eskuratzeko eskubidea izango dute. Taldekako eskakizunak zozketan parte hartzeko aukera bakarrik ematen dizu, nahiz eta taldean sartu diren bazkideak bi, hiru edota lau izan. Behin inskripzioa gauzatu gero, ezin ezizango da baliogabetu.

Athletic Club-FC Bartzelona Kopako finalarako sarrerak eskuratzeko zozketan parte hartzeko inskripzioa <http://www.athletic-club.net> web orrian dagoen formularioren bitartez egin ahal izango da eta baita ere telefonoz 94 405 05 15 zenbakiaren bitartez 10:00etatik 20:00etara, larunbatak eta igandeak barne, edota San Mameseko leihatiletan 10:30etatik 13:30etara eta 17:30etatik 20:00etara, larunbatak eta igandeak barne. Inskripzioa gauzatzeko ezinbestekoa izango da bazkide nagusiaren txartela eta NAN aurkeztea.

Beraz, bazkide bakoitzak parte-hartze bakarra izango du, banaka ala taldeka parte hartzeaz gain. Inolaz ere pertsona berak sari bat baino gehiago eskuratzeko eskubidea izango du. Eragin guztietarako saridunaren baldintza norbanakoarena eta transferiezina da sarrerak hartzeko eta ordaintzekoan.

KLUBAK ez badu irabazlea topatzen edota berorrek saria agiri honetan ezarritako epe eta baldintzetan onartuko egingo ez balu, saridunari dagokionez sarreren eskaera bertan behera geratuko litzateke eta ezjasotako sarrerei emango zaion tratamendu bera emango zaio, aurrerantzean azalduko dena hain justu ere.

Artikulu IV.- Zozketa egiteko data.

Aurreko artikuluan azaltzen den zozketarako jasotako eskakizun guztien artean Bilboko Elkargoaren partaidea den Antonio Jose Martinez Lozano Jaunaren begiradapean ospatuko da 2009ko apirilaren 14an, 19:00etan, Athletic Clubeko prensa aretoan, Ibaiganen. Zozketa publikoa izango da eta hedabideak bertan egon daitezke.

Arrazoi nagusiengatik zozketa data horretan egitea ezinezkoa suertatuko balitz, horretarako gauza izango den hurrengo egunean egingo litzateke.

Artikulu V. Zozketaren prozedura.

KLUBAK Antonio Jose Martinez Lozano Bilboko notarioari Athletic Clubeko idazkariaren ziurtagiria aurkeztuko dio aurrez aurretik azalduko betebeharrak guztiak bete dituzten eta eskubidea duten sarreren eskaeren erregistro kodeekin, beti ere III Artikulua araberaren arabera.

Notarioak erabakiko du zein den biderik egokiena bost erregistro kode zoriz aukeratzeko, ZENBAKI BURU izango direnak 1, 2, 3, 4 eta 5, eta bakoitza TALDE SARIDUNAREN lehen zenbaki sariduna izango direnak.

Artikulu VI.- Zenbaki buru eta Talde Saridunak

Zozketaren egunean, oinarri hauen arabera, bost erregistro kode aukeratuko dira KLUBAK emandako ziurtagiariaren barne daudenen artean (hemendik aurrera ZENBAKI BURU izango direnak)

ZENBAKI BURU hori erregistro saridunaren lehen zenbakia da eta hurrengo 2.959 erregistro kodeekin batera, gorantza eta beharrezkoak izango direnekin batera 2.960 sarrera banatzeko TALDE SARIDUNA osatuko dute. Beraz bost TALDE SARIDUN daude, 1, 2, 3, 4 eta 5. Eta bakoitzak 2.960 sarrera banatuko ditu erregistro kode sariduna eta hurrengo erregistro kodeen artean, sarrera horiek bete arte, beti ere erregistro kode bakoitzak egin dituen eskarien arebera, lau gehienez kode bakoitzeko.

ZENBAKI BURU bi edo gehiago hurbilegi badaude, hau da, TALDE SARIDUNAK gainezartzen badira, talde bakarra osatzen dutela ulertuko da eta sarrera kopurua gainezarrita dauden taldeei dagokiena izango da.

ZENBAKI BURU bat erregistro kodeen amaieraren gertu baldin badago eta, berez, ezin baldin badu TALDE SARIDUNA osatu 2.960 sarrera agortzeko horrenbeste koderik ez duelako, behin zerrenda amaituz gero erregistro zerrendaren hasieratik segituko luke.

KLUBAk Athletic Clubeko iragarki-taulan, <http://www.athletic-club.net> web orrian eta berak gura duen hedabideetan **talde bakoitzarako saridunak izan diren erregistro kodeak, hots, finalerako sarrerak eskuratzeko eskubidea dutenak, argitaratuko ditu.**

Halaber, komunikazio horretan TALDE SARIDUN bakoitzarentzat prestatu diren tokia, datak eta ordutegiak jakinaraziko dira.

TALDE SARIDUNean dauden gainerako erregistro kodeak, hasiera batean sarrerarik jasotzen ez dutenak agortu aurrez aurretik direlako, erregistro kode erreserbak izango dira, taldean sarrera libre geratzen direnerako, jaso ez baldin badira edota epean ordaindu ez direlako.

Artikulu VII. Zozketa gauzatzea

Zozketaren prozesua behin hasi gero KLUBAri ez dagozkion arrazoiengatik bertan behera geratuko balitz, hasieratik errepikatuko litzateke, unera arte egindako ekintza guztiak baliogabetuz, sarreraren esleipenak barne.

Zozketa Artikulu IV-an azaltzen den egunean egingo da, KLUBAk beharrezkoa denean aldatzeko eskubidea duen arren.

Artikulu VIII. Sarien komunikzio eta baren gozamina.

KLUBAk arestian aipatzen den eran jakinaraziko ditu sarrerak eskuratzeko eskubidea duten erregistro kodeak eta baita ere tokia, data eta ordutegia sarrerak ordaindu eta hartzeko.

Epe hauek hasierako eta amaierako data izango dute TALDE SARIDUN bakoitzarentzat. Bakarrik hasierako egun horretan izango da posible eskuratzea, inolaz ere, lehenago. Epe amaitzarekoan ez baldin bada hartu, diruz ordaindu eta gero, eskatutako sarrerak eskuratzeko eskubidea bertan behera geratzen da eta TALDE SARIDUNaren baitako hurrengo erregistro kodearentzat esleitzen dira. Hala eta guztiz ere, oraindik ere sarrerak soberan baleude, hurrengo artikuluan SOBERAKINEi emango zaien tratamendu bera emango litzateke.

Sarrera/sarreak aukeratzeko ordena hauxe izango da: TALDE SARIDUN 1, ostean TALDE SARIDUN 1 eta horrela TALDE SARIDUN 5era heldu arte; TALDE SARIDUN bakoitzeko kasu guztietan muga 2.960 sarrera izanik.

TALDE SARIDUN bakoitzean banaketa leihatiletara heltzeko ordenaren arbera egingo da. Modu honetan leihatilan jasotzen duenak une horretan dauden sarreraren artean askatasun osoz aukera dezake.

Eskakizun bereko sarrera guztiak ematea ezinezkoa balitz edota eskakizun berean KLUBAk maila edota salneurri ezberdineko sarrerak eskainiko balitu, taldeka egindako eskakizunaren baitan egin beharreko banaketa eskatzaileen arteko akordioaren itartez egingo litzateke, KLUBAren inolako ardurarik gabe.

Sarrerak leihatiletatik jasotzeko honako betebeharrak hauek ezinbestekoak izango dira:

- Onuradun bazkide ala elkartutako bazkideen jatorrizko bazkide txartela/k aurkeztea.
- Sarrerak ordaindu eta jasotzen duenaren egungo nortasun agiria aurkeztea, sariduna ala bestelako pertsona bat izan daitekena.
- Diruz ordaintzea jasotzeko unean.
- Ziurtagiri bat sinatzea zenbat sarrera eta zeintzuk diren onuradunak zehaztuz.

Artikulu IX.- Soberan dauden sarrerak

Hasieran 14.800 sarrereko kupotik kanpo etor daitezkeen sarrerak, baldin eta bazkideen artean zozketa daitezkeen, horrela banatuko lirateke.

TALDE SARIDUN bakoitzaren baitan sarrerak jaso zuen azken erregistro kodearen hurrengoan artean.

TALDE SARIDUN bakoitzean erregistro kode bakar bati dagokio, TALDE SARIDUN 1etik TALDE SARIDUN 5era dauden sarrera guztiak agortu arte.

SOBERAKINak dauden kasu guztietan, hasierako banaketan osorik sarrera jaso ez zuten elkartutako sarreraren eskaerak lehentasuna izango dute (baldin baleude), esaterako lauko elkarte batetik bik soilik sarrerak jaso baldin badute.

Artikulu X. Oinarrien Onarpena.

Parte hartzaileek, zozketan honetan parte hartzearekin batera, bere oinarriak eta KLUBAren irizpideak onartzen dituzte edozein arazo konpontzeko orduan eta edozein erreklamazioari uko egiten diote.

Sarien esleipena ezin izango da inolaz ere errefusatu KLUBAk egindako nahigabeko akatsarengatik.

KLUBAk honako oinarri hauek edota zozketa honen antolakuntza eta kudeaketa, bertan behera uzteko, ezeztatzeko edota aldatzeko eskubidea dauka.

Espreski, KLUBa zozketa honi dagokion edozein arduratik salbuetsita dago.

Artikulu XI. Kode Saridunen Publizitatea.

Oinarri hauetan adierazitakoaz gainera, zozketaren azken emaitza jakinaraziko da hainbat hedabidetan. Halaber Athletic Clubeko iragarki-taulan eta <http://www.athletic-club.net> web orrian.

Artikulu XII. Oinarrien gordailua.

Promozio honen oinarriak gorde eta protokolarizatu egin dira Bilboko Notarioen Elkargoaren kide den Antonio Jose Martinez Lozano Jaunaren aurrean, Bilboko Gran Via Diego Lopez de Haro kalean, 46 zenbakian, bigarren eskumaldean bulegoa duena; <http://www.athletic-club.net> eta edozein pertsonarentzat eskuragai egongo dira.

KLUBAk notari artxibategi elektronikoa eta bere ezaugarriak ezagutzen ditu (ÁBACO) eta, beraz, oinarri hauen kudeatzailea den notarioari INSTITUTO NOTARIAL PARA TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN, S.L. (INTI)ri hauen berri emateko baimena ematen dio. Horretarako, artxibategiaren arauak onartzen ditu, jakitun den heinean.

Artxibategi hau konsultatzeko, enpresaren izena bezala ATHLETIC CLUB agertuko da eta zozketaren izen konkretua "Sarreraren zozketa ATHLETIC CLUB - KOPA 2009" izango da.